



Erbestez Erbeste

Babeslea



EIE Euskal Idazleen Elkartea
—————
—————
—————

Testuen hautaketa: *Juanra Madariaga*
Sarrera: *Edorta Jimenez*
Diseinua eta maketa: *Sardina Gráfica*
Inprimatzailea: *Antza S.A.L.*

Erbestez Erbeste

Zenbait Euskal Emakumeren Testuak / Idatziak / Laginak



Emakume haien abantea!

Mikaela Zarrana izenekoak dakigun guztia, hark berak zenbait bertso gogoangarritan utzi zizkigun zertzeladeiesker dakigu. Hots, izen-abizenak eta Apaiztegi jaunaren barkuan beste ehunkadekin batera Ameriketara joan zela, ez dakigu nora; ontziak pairatu zituztenak ere kontatu zizkigun. Itzelak. Bertsoak paperean argitaratu ziren, kantatuak izan zitezen. 1865ean hain zuzen.

Emigrazioa deritzote Mikaelak eta hark bezala bizimodu bila urrunera jo zutenen zerari. Nik neuk zuzenago deritzot halakoena erbestertze ekonomikoa izan zela esateari. Erbestertzearen zioak ez baitira beti-beti politikoak izaten.

Politikoa, hil ala biziko erbestertzea alegia, Karmele Errazti (Bilbo, 1885 – Paue, 1954.06.23) emakume idazle eta ekintzailearena izan zen. Emakume Abertzale Batzako (EAB) lehenengo burua izan zela esanda horra azaldurik erbestertzearen premia 1937an. Haatik, harako 1937ko hartan erbestertu zirenak ez ziran huts-hutsik pertsonak izan. Euskal literatura eta kazetaritza ere -euskarazkoez ari gara- erbestera jo beharra ukan zuten. Karmelek berak aipatzen du *Euzko-Gogo*a hona ekarri ditugun haren lagin bietako batean.

Zorigaitzoko 1937az geroztik euskara hizkuntzaz ziharduten agerkariak desagerraraziak izanda, isilaraziak ziren Berpizkundearekin gero eta ugariagoak

ziren idazle eta kazetari ahotsak. Bide urratzaile horien aitzindaritzat jo liteke Purificación Gorostiza Garai *Garbiñe* (Barakaldo, 1878.01.1 – 1909.12.04), arestian aipatu dugun Karmele Erraztik esan bezala.

Izenez eta ezizenez ezaguna da hurrengo emakume idazlea, hain zuzen ere Errose Bustintza *Mañari* (Mañaria (Bizkaia), 1899.11.03 – 1953.08.20), ipuingile aitortua. Neba Ebaristo, goitizenez *Kirikiño*, haren heriotzaz idatzi zuen iruzkina ekarri dugu hona.

Hurrengo ahotsa *Agurtzane* goitizenez sinatu ohi zuen emakumezko guretzat ezezagun batena da. Haren jatorrizko izenaren bila Espainiako II Errepublikaren garaian euskal emakume idazleen artean sortu zuten Andereño Idazlien Batza delakoaren berri jakin dugu.

Artean emakumezko zenbat idazle ziren ez badakigu ere nahikotxoak zirela irizteko motiboa ematen digu *Maitxo* sinatzen zuen Miren Gabilondok (Mungia, 1902.01.29 – Donostia, 1994.01.01) hona ekarri dugun iruzkinean. Idatzia 1930ekoa dela begiratuta arestian 1937ko erbesteraldiaz esandakoa berretsi behar.

Miren Joaristi dugu horren hurrengo adibidea. *Mirentxu* goitizenez laurogeita hamaika idatzi argitaratu zituen garaiko euskal prentsan, hots, *El Día* eta *Euzkadi* egunarietako euskal orrietan eta *Argian*. Erbestetik ez.

Hurrengo idatzi biak *Arritokieta* goitzenaz sinatu ohi zuen Julene Azpeitiak (Zumaia, 1888.01.08 – Bilbo, 1908.02) idatziak dira. Bere belaunaldiko emakume idazleez, gerrak eta erbesteak isildu haiexez espero zitekeenaren adibide argia eta bakana da Julene Azpeitia. 1961ean *Amandriaren altzoan* liburua argitaratu zuen, izatez herri tradizioko ehun ipuinen bilduma dena.

Azpeitiak liburua argitaratu zuenerako kasik ehun urte ziren igaroak Zarranak bilduma honetako lehenengo testua idatzi zuenetik. Zarrana ameriketara euskaldun joana zen; 1916an, ezkondu berrian Mexikora joana, bertan hasi zen euskaraz idazten Azpeitia.

Arestian esan bezala, Euskal Herrian erbestertzetan lehen-lehena bizimodua atera beharrak ezarri zuena izan zen; bigarrena, politikak eragindakoa. Biak ere biak Europako beste herrialde askotan ere bizi izan direnak. Gurean, ordea, bada beste hirugarren erbestertzatze bat ere gogoan hartu beharrekoa. Euskal literatura gertatu zena hain zuzen. Emakumezkoen ahotsak, mendeetan eta mendeetan, eta salbuespenak salbuespen, euskal literaturatik kanpo lotu baitziren. Euskal literaturak emakumezkoentzat erbestertzatze sistema oraino ikertu gabea indarra galduz doan arren ezin esan hori gauditurik dugunik.

Azken alde horretatik liburuxka honetara bildu ditugun ahotsak eta testuak hirugarren erbestertzatze hori buelta ematen saiatu ziren zenbait emakume aintzidarenak dira.

Ez dakigu bildumako lehen testua sortu zuen Mikaela Zarrana aintindarietan aintzindari inoiz sorterrira itzuli zen. Idatzi zituen bertsoak ordea Pariseko

Biblioteka Nazioleraino iritsi ziren, Donostian argitaratu zen haien bertso-papearen ale bat hantxe baita gorderik.

Hala bada, bidaiia luzea Mikaela Zarrana haren bertsoena. Hain luzea ze, ez baitakigu zer iritsi zaigun hark idatzi bezala eta zer inprimategiko iratxoek edo bestek errakuntzaz aldatu. Hau berau, esterako:

“Pasadizoak ongi deklaratzeko, abantea baneuka esplikatzeko;”

“Abantea baneuka” hori Zarranak horrelaxe idatzi baldin bazuen, eta oraingoz behintzat ez daukagu kontrakorik esateko motiborik, altxor txiki misterioitsu bat utzi zigun, denon jolaserako.

Jolastu dugu eta atera dugun ondorioa da “abantea eduki” zer izan zitekeen, ez baldin bazen itsasontziak bezala aurrera egiteko indarra. Beraz, adorea, kemena, garra, indarra, nahi dena.

Zarranak bezala bildumako beste emakumeek bezala berena euskaraz eta idatziz “esplikatzeko” abantea eduki beharra izan zuten. Aipatu ditugun hiru erbesteetako nahiz bat, nahiz bi, nahiz hirurak gauditzeko nabigazioetan sartuak baitziren.

Zer baina “abantea” errakuntza izan eta jatorrizko hitza beste bat izan balitz? Zein hitz? “Abantaila” akaso? Esplikatzeko abantaila, hots, pasadizoak ongi deklaratzeko abantaila?

Zarranari lapurretan eginez eta bide batez omen eginez paratu diogu titulua sarrerra honi.

Emakume haien abantea!

1. Mikaela Zarrana (Bertsolaria, 1869)

Bertso berri batzuek,
ditut aterako,
Apaiztegi jaunaren
barku ontarako,
zeren badaukazkigun
motiborik asko,
jendeak pasatu du
miseria franko.

Pasadizoak ongi
deklaratzeko,
abantea baneuka
esplikatzeko;
indarrak juan eta
memoria flako,
kartzelakoen gisa
sufritu bearako.

Barkurako jendea
biltzen duenean,
agintzeak aundiak
beren mingañean;
indarrak eziñ egiñ
uraren gañean,
jendea martxatu da
miseri aundian.

Pasaia'n irten eta
egun gutxi barrun,
zorriak an zebiltzen
ontzien ingurun;
gutxienaz bagañen
bosteun bat, lagun,
orra zer gobernua
Apaiztegi'ñ barkun.

Nafar-eria ere
sartu zan barkura,
orduan artu zuen
jendeak tristura;
iru il ziran eta
artu ta putzura,
eriotza zor degu
jαιοak mundura.

Emengo miseriak
ongi agertzeko,
eun ta larogei bertso
ez lirake asko;
bañan bastante dira
entendituzeko,
poliki asi giñan
barku ontarako.

Kozineroa gendun
ona ta leiala,
bizirik egoteko
bagendun bearra;
berak jan ta eran egiñ,
besteari farra,
frantzes bizar gorria
dana giza txarra.

Koziñeroak badu
bertso oien premia,
aspaldian ez dago
gutxi merezia;
pasajeroai burla
nai duan guzia,
baioneta dirudi
dana puzunia.

Goizean gosaltzean
sardiñ ustel zarra,
biotza animatzeko
ez da gauza txarra;
barkuan sartutzean
bagendun indarra,
erdia balego oraiñ
ez litzake txarra.

Mikaela Zarranak
kantuak paratu,
barren ontako jendeak
naute enkargatu;
afizioa izan da
nik eziñ faltatu,
orra amasei bertso
nai duenak kantatu.

Bertso berri batzuek,
ditut aterako,
Apaiztegi jaunaren
barku honetarako,
zeren badauzkagun
motiborik asko,
jendeak pasatu du
miseria franko.

Pasadizoak ongi
deklaratzeko,
abantea baneuka
esplikatzeko;
indarrak joan eta
memoria flako,
kartzelakoen gisa
sufritu beharko.

Barkurako jendea
biltzen duenean,
agintzeak handiak
beren mingainean;
indarrak ezin egin
uraren gainean,
jendea martxatu da
miseri handian.

Pasaian irten eta
egun gutxi barru,
zorriak han zebiltzan
ontzien inguruan;
gutxienaz baginen
bostehun bat, lagun,
horra zer gobernua
Apaiztegiren barkuan.

Nafarrerria ere
sartu zen barkura,
orduan hartu zuen
jendeak tristura;
hiru hil ziran eta
hartu eta putzura,
heriotza zor dugu
jaihoek mundura.

Hemengo miseriak
ongi agertzeko,
ehun eta laurogei bertso
ez lirateke asko;
baina bastante dira
entenditzeko,
poliki hasi ginen
barku honetarako.

Kozineroa genuen
ona eta leiala,
bizirik egoteko
bagenuen beharra;
berak jan eta edan egin,
besteari farra,
frantses bizar gorria
dena giza txarra.

Kozineroak badu
bertso horien premia,
aspaldian ez dago
gutxi merezia;
pasajeroei burla
nahi duen guzia,
baioneta dirudi
dena puzunia.

Goizean gosaltzean
sardina ustel zaharra,
bihotza animatzeko
ez da gauza txarra;
barkuan sartzean
bagenuen indarra,
erdia balego orain
ez litzateke txarra.

Mikaela Zarranak
kantuak paratu,
barren honetako
jendeak
naute enkargatu;
afizioa izan da
nik ezin faltatu,
horra hamasei bertso
nahi duenak kantatu.

Oharrak

Abantea eduki: adorea eduki.

Farra: barre.

Puzunia: pozoia.

2. Purificación Gorostiza *Garbiñe* (Euzkadi, 1931-10-09)

Ongi etorria EUZKADI begiko ori, ongi etorria izan zaitezala, Pozik agurtzen zaitugu. Aspaldiko denporan egon naiz zertxo bait idazteko asmoan. Uretara sartu nai-eta-nai ez dabillen umetxuba legez. Nere lotza guztijak alde batera utzi-ta, gaur baña, emen natorkizu, nere ezer-eza erakustera. EUZKADI geure ama dan ezkeru, esketsiko didat. Ausarkeri txikiña baita.

Onuzkeru zurekin aitzuta bizi giñala, esango zenduan, baña antzik ere ez. Asko maite dan gauza bat, urrutirago eta maiteagol. Zenbat eta ixeka geyago egin zeuri, orduan nayago, maitago. Beñere poz andiaguakin artu ete zaitugu?

«Emen gera izparringi maite ori —esan biarko dizugu— ainbeste denporanlexa zuluan eskutatuta eduki zituen EUZKADI laztana». Naiko lanik egiten dute zure areyuak galtzeko eta oinazpiratzeko, zorionez baña badituzu laguntzaliak ere eta onelako laguntzale onak dituzun bitartian etzera galduko.

Gure laguntza oso txikia izango dezu, baña gaur beñere baño indartsuago eta gogotsuago arkitzen gera zeure alde lan egiteko, baita geure azkenengo odol tantoa eman biar bada ere. Korapillo txar guztietatik ezkatu zaitegu ama laztana. Geure etxeko atiak zabalik dituzu eta gaur bezelaxe besuak zabalik artuko zitugu bizi nai degu beti.

Euzkadi aberri ona, gora betiko.

Ongi etorria *EUZKADI* begiko hori, ongi etorria izan zaitezela, pozik agurtzen zaitugu. Aspaldiko denboran egon naiz zertxobait idazteko asmoan. Uretara sartu nahi-eta-nahi-ez dabilen umetxo legez. Nere lotsa guztiak alde batera utzi-eta, gaur baina, hemen natorkizu, nire ezereza erakustera. *EUZKADI* geure ama den ezkerro, esketsiko dit. Ausarkeria txikina baita.

Honez gero zurekin ahaztuta bizi ginela, esango zenuen, baina antzik ere ez. Asko maite den gauza bat, urrutirago eta maiteago. Zenbat eta iseka gehiago egin zeuri, orduan nahiago, maiteago. Behin ere poz handiagoarekin hartu ote zaitugu?

«Hemen gara izparringi maite hori -esan beharko dizugu-hainbeste denboran leize-zuloan ezkutatuta eduki zuten *EUZKADI* laztana». Nahiko lanik egiten dute zure arerioek galtzeko eta oinazpiratzeko, zorionez baina badituzu laguntzaileak ere eta honelako laguntzaile onak dituzun bitartean ez zara galduko.

Gure laguntza oso txikia izango duzu, baina gaur behin ere baino indartsuago eta gogotsuago aurkitzen gera zeure alde lan egiteko, baita geure azkenengo odol tantoa eman bihar bada ere. Korapilo txar guztietatik askatu zaitugu ama laztana. Geure etxeko atak zabalik dituzu eta gaur bezalaxe besoak zabalik hartuko zaitugu bizi nahi dugu beti.

Euzkadi aberri ona, gora betiko.

Oharrak

Egilea *EUZKADI* idaztean izen bereko egunkariatz ari denez (Bilbo, 1913-1937) hitza bere horrextan utzi dugu.

Era berean Euzkadi izena, historikoa den aldetik, bere horretan uztea erabaki da.

Esketsi: barkatu.

3. Errose Bustintza *Mañari* (*Euzkadi*, 1929-02-10)

Kirikiño´ren eriotza yakin zanian, esan bearrik eztago zelango atsekabe ta samintasuna artuko zan, berak hainbeste maite eban erri onetan. Emen danok maite gendun asko eta maitasunaren neurriz artu dogu atsakabia be.

Erritxu honetan uts andiya itxi dausku, baña bakigu Yaungoikuak euzkeldun andi onentzat zeruan gertatuta aurki daben tokiya bete dala, eta orrek arintzen dausku geure samintasan andiya.

Kirikiño luzarotxuan ebillen makalik, eta igaro dan asteko martitxenian, ondo ezeagoela ta ogeratu zan. Beriala deitu yakon emengo osalari Areitio Gotzon´i, onek ikusi orduko esaban oso txarto egoala, ta gura bazan beste osalari batzuri deituteko. (...)

Esan yakon geixuari osagillien eretxia eta ondo izango zala gertutia. Kirikiñok entzun ebanerako esaeban pozik artuko ebazala Elizakuak, eta gertatu bihar ebalá.

Eguasten goizian arte eban Gure Yauna, santuen bake, oneraspen eta maitasunaz. Bere adoria ain zan andiya, begira gengoan guztiyok arrituta geratu giñian, bere adore eta sinismen biziya ikusita.

Egun atan ainbat lagun etorri yakon ikustera, eta danari poz-pozik berba egiten eutson barreka-barreka zeinda osasunaz beterik egon balitz lez. Eguasten gaba be naikue ondo igaro eban, baña eguen goizaldeko iruretan luak artu eban eta goizeko bost lauren gitxiagotan zeruan izartu zan. ¡Au bai eriotza ederra!

Kirikiñoren heriotza jakin zenean, esan beharrik ez dago zelango atsekabe eta samintasuna hartuko zen, berak hainbeste maite zuen herri honetan. Hemen denok maite genuen asko eta maitasunaren neurritz hartu dugu atsekabea ere.

Herritxo honetan huts handia utzi digu, baina badakigu Jaungoikoak euskaldun handi onentzat zeruan gertatuta eduki duen tokia bete dela, eta horrek arintzen digu geure samintasun handia.

Kirikiño luzarotxoan zebilen makalik, eta igaro den asteko martitzenean, ondo ez zegoela eta oheratu zen. Berehala deitu zitzaion hemengo osalari Areitio Gotzoni, honek ikusi orduko esan zuen oso txarto egoala, eta gura bazen beste osalari batzuei deitzeko. (...)

Esan zitzaion gaixoari osagileen iritzia eta ondo izango zela gerturatzea. *Kirikiñok* entzun zuenerako esan zuen pozik hartuko zituela Elizakoak, eta gertatu behar zuela.

Eguazten goizean hartu zuen Gure Jauna, santuen bake, oneraspen eta maitasunaz. Bere adorea hain zen handia, begira geunden guztiok harrিতuta geratu ginen, bere adore eta sinesmen bizia ikusita.

Egun hartan hainbat lagun etorri zitzaion ikustera, eta denei poz-pozik berba egiten zien barreka-barreka zein-eta osasunaz beterik egon balitz lez. Eguazten gaua be nahikoa ondo igaro zuen, baina eguen goizaldeko hiruretan loak hartu zuen eta goizeko bost laurden gutxiagotan zeruan izartu zen. Hau bai heriotza ederra!

Oharrak

Zelango: nolako.

Eguren: ostegun.

Martitzen: astearte.

Oneraspen: debozio.

Eguazten: asteazken.

Izartu: esnatu.

4. *Agurtzane* (El Día, 1930-06-19)

Ordu onian irtena izan dedilla izparringi begi au.

Agur gozo bat beronen ardura artu detenai, ta berdin idazle eta irakurle guziaz, baina batez ere, zuri...(Emendik aurrerakoa irakurtzen zail dago)...

Ari naiz zerbait idazten dedalakuan, ta gañera bildurrez, nere buru auste guziak alperrik izango ote diran ere banago ta. Ez ote da ordea EUSKAL ORRIan toki apurtxo bat neretzat izango, ala emakumia naizelako guxatuko ote nazu? (Ikusi dezu orrelako asmorik ez dedala) [sic]. Norbaitek bear bada esango bai du, emakumiak onela jardunian baño etxeko zeregiñetan obeto ematen duala! Guk ere euskera maite ordea, ta maitasun onek zeredozer egiteko eskatzen. Euskera semeen ez ezik, galabien bearrean ez ote dago ba?

Ordu onean irtena izan dadila izparringi begi hau.

Agur gozo bat beronen ardura hartu dutenei, eta berdin idazle eta irakurle guziei, baina batez ere, zuri... (Hemendik aurrerakoa irakurtzen zail dago).

Ari naiz zerbait idazten dudalakoan, eta gainera beldurrez, nire buru hauste guziak alperrik izango ote diren ere banago eta. Ez ote da ordea EUSKAL ORRIAn toki apurtxo bat niretzat izango, ala emakumea naizelako guxatuko ote nauzu? (Ikusi duzu horrelako asmorik ez dudala) [sic]. Norbaitek behar bada esango baitu, emakumeak honela jardunean baino etxeke zereginetan hobeto ematen duela! Guk ere euskara maite ordea, eta maitasun honek zeredozer egiteko eskatzen. Euskara semeen ez ezik, alaben beharrea ez ote dago ba?

Oharrak

Egileak EUSKAL ORRI legez aipaturik dakarrena *El Día* egunkariak egitaratzen zuen *Euskal Orria* da.

5. Miren Gabilondo *Maitxo* (El Día, 1931-07-30)

Aspaldian makina bat aldiz su eman diogu gauza oni, baina oraintxe hurreratu zaigu egun hori ere. Iñaki Deunaren egun handia ber «Mirentxu»k izendatu zigun egun egokia. Eta gaur «Maitxo»k egiten dizute dei bat, Elgoibarreko idazle neska eta mutilzahar guztien izenean, auzo errietako idazle lagun zeraten «Itxas aurre», «Agiro mendi», «Burdin-bide» ta oaiñ gogoratzen ez naizen beste idazle guztiai. Ortzak txorrostu mutil zarrak baldin badituzte beintzat: jaki gosua daude eskeñita egun ortarako ta, «Aixerixa»k olaskuak; «Maitxo»k eperrak; «Itxas Aurre»k arraiñ «presku»; «Mirentxu»k zezen baten «morruak»; «Aberri»k perretxiuak eta «Ixaka» ta «Kosmar»ek «dozena» erdiña «azeituna bote» edo «pote». Ta aizak «Agiro Mendi»k ez ortzik ta ez agiñik ez dekala entzun diat, baño ez ari atziratu orregatik; Bekeken esneakin ai gosua egiñgo diagu iretzat. Merienda ondoren konzierto bat joko omen ditek «Ixaka» jatorra erdian dutela Donosti'ko «Ira»k eta Tolosa'ko «Yolanda»k, Patxiku maixu dutela. Ia ba, nire biotzeko idazle lagun «Ira» ta «Yolanda», irakasle zintzo, idazle jator eta txistulari iaioak, ia Iñaki Deunaren egunian beste idazle askoren artean zuek agurtzeko zoriona izaten degun.

«Loretxu», «Miz», «Pilipa» «D.Z.», «Lau-uso» ta auek ziur nago agertuko dirala. «Errena» ere baeidator: Azpeiti'tik Elgoibarrera dabilen «korriuari» atzetik ezarri bere «Bugatixa» zurda soka-batekin ta berebiziko aguduen iritxiko omen da Elgoibar aldera.

Ta aizu «Errena», kanario abeslariaren batzuk omen dituzu... ¿e? Txori zalia naiz ba ni ere... Iñaki Deunaren egunera arte ba «Errena», etorri beldur gabe geltokian zai egongo dira «Maitxo» ta lagunak.

Beste ezer ezpalego ere merienda usañera bakar bakarrik etorri leike egun ontan gure errira. Baño guztiok dakizute Batzokiaren «inagurazioa» ta ikurrin berriaren onespena dala bide euskal jai aundia dagoala eratuta. Loiola aldekoentzat ezta egun egokia, baño nik uste euzko maitasunaren izpirik daukanik ezta egun ortan gure errira agertu barik geldituko.

Aspaldian makina bat aldiz su eman diogu gauza honi, baina oraintxe hurreratu zaigu egun hori ere. Iñaki Deunaren egun handia ber *Mirentxuk* izendatu zigan egun egokia. Eta gaur *Maitxok* egiten dizue dei bat, Elgoibarreko idazle neska eta mutilzahar guztien izenean, auzo herrietako idazle lagun zareten *Itxas aurre*, *Agiri mendi*, *Burdin-bide* eta orain gogoratzen ez naizen beste idazle guztiei. Hortzak zorroztu mutilzaharrek baldin badituzue behintzat: jaki gozoak daude eskainita egun horretarako eta, *Aixerixak* oilaskoak; *Maitxok* eperrak; *Itxas Aurrek* arrain “preskua”; *Mirentxuk* zezen baten “morruak”; *Aberrik* perretxikoak eta *Ixaka* eta *Kosmarek* “dozena” erdina “azeituna bote” edo “pote”. Eta aizak *Agiri Mendik* ez hortzik eta ez haginik ez daukala entzun diat, baina ez hadi atzeratu horregatik; Bekeken esnearekin ahi gozoa egingo diagu hiretzat. Merienda ondoren kontzertu bat joko omen ditek *Ixaka* jatorra erdian dutela Donostiako *Irak* eta Tolosako *Yolandak*, Patxiku maisu dutela. Ea ba, nire bihotzeko idazle lagun *Ira* eta *Yolanda*, irakasle zintzo, idazle jator eta txistulari iaioak, ea Iñaki Deunaren egunean beste idazle askoren artean zuek agurtzeko zoriona izaten dugun.

Loretxu, *Miz*, *Pilipa*, *D.Z.*, *Lau-uso* eta hauek ziur nago agertuko direla. *Errena* ere ba ei dator: Azpeititik Elgoibarrera dabilen “korriuari” atzetik ezarri bere “Bugatixa” zurda soka-batekin eta berebiziko agudoen iritsiko omen da Elgoibar aldera.

Eta aizu *Errena*, kanario abeslariren batzuk omen dituzu... e? Txori zalea naiz ba ni ere... Iñaki Deunaren egunera arte ba *Errena*, etorri beldur gabe geltokian zain egongo dira *Maitxo* eta lagunak.

Beste ezer ez balego ere merienda usainera bakar bakarrik etorri liteke egun honetan gure herrira. Baina guztiok dakizue Batzokiaren “inagurazioa” eta ikurrin berriaren onespena dela bide euskal jai handia dagoela eratuta. Loiola aldekoentzat ez da egun egokia, baina nik uste euzko maitasunaren izpirik daukanik ez dela egun horretan gure herrira agertu barik geldituko.

Oharrak

Bekeke: bekereke, ardi.

Bugatixa: Bugatti; autoen marka ezaguna.

Euzko: bere horretan utzi dugu, grafia historikoa dela gogoan hartuz.

6. Julia Gabilondo *Mait*e edo *Mate* (*Euzkadi*, 1933-05-11)

Euzkadi, geure Aberri kutuna ikertau ondoren aurkitzen naz.

¡Zein ederra dan! Bere itxasoaren oin zuriñak, bere mendi-tontorren erpin lerdanak, bere zelayetako bedar ugariñak, bere basetxe zuri atsedentsubak, neure begiñak ikusguraz eta neure bijotza mattasun-egarriz itxi dabez.

¡Onen txairo, atsedengarri ta politta egin daben geure Euzkadi´ren Jaungoikua zelakua ete-da?

Baña neure asmua ezta Euzkadi geure Ama´ren edertasunak azaltzia. Ondo litzake, baña orañarte be amaika idazlek lan ori egin dabelako eta batez-bere Euzkadi-azalatzaz barik, Euzkadi goguatatzaz idaztia gauza biarrekuagua dalako.

–Euzkadi ta abertzaletasuna– ixenaz, neure Euzkadi-ziar ibilketa onek agertu daustana, berrargertuko dautzut, ene aberkide eta irakurle mattia.

Jorralla´ren 29´gna zan. Euzkadi batetik-bestera ikertu gura gindun euzkuak agurtuten, goxeko saspiretarako, eundaka aberkide asko ziran. Eguzkiñak bere laztanik bero ta samurrenak geuretzat ebazan. Bijotzak atsedengurari gozoz kikikilika gebazala, batzuben gora, askoren agurrak eta txistubaren eresi bizkorraren laztanetan, urten geban 303 aberkidek.

Txistulariña Zubiri´tar Jon abertzale zintzua giñun. Zeuretzat, Jon, neure lenengo eta zoriñon-agurrik bijotzetikubena. ¡Amaikatxu lan egin dozu geure euzko-dantzen-alde! Bidaiazar ziran etxe ta uri guztijetan arrera gozoz artu ta agurtuten gindubezan.

Yurre´n, abertzale-talde aundiñak, txistuba ta euzko-ikurriña buru bezala, urten euskuben.

Otxandiño´n amaikagarren tarranta, ondarrutar ta durangarrak ekarzan tarranta geitu jakun.

GAZTEIZ. Amarretan eldu gintzan Arabako Uri-burura. Ordu erdi bertoko abertzale errimiak agurtu eta uri politta ikustateko

Euzkadi, geure Aberri kutuna ikertu ondoren aurkitzen naiz.

Zein ederra den! Bere itsasoaren oin zuriak, bere mendi-tontorren erpin lerdanak, bere zelaietako belar ugariak, bere basetxe zuri atsedentsuak, neure begiak ikusguraz eta neure bihotza maitasun-egarriz utzi dituzte.

Honen txairo, atsedengarri eta politta egin duen geure Euzkadiren Jaungoikoa zelakoa ote da?

Baina neure asmoa ez da Euzkadi geure Amaren edertasunak azaltzea. Ondo litzateke, baina orain arte ere hamaika idazlek lan hori egin dutelako eta batez ere Euzkadi azal-hatzaz barik, Euzkadi gogo-hatzaz idaztea gauza beharrekoagoa delako.

-Euzkadi eta abertzaletasuna- ixenaz, neure Euzkadi zehar ibilketa honek agertu didana, berragertuko dizut, ene aberkide eta irakurle maitea.

Jorrailaren 29gna zen. Euzkadi batetik-bestera ikertu gura genuen euzkoak agurtzen, goizeko zazpietarako, ehunaka aberkide asko ziran. Eguzkiak bere laztanik bero eta samurrenak geuretzat zituen. Bihotzak atsedeen-gurari gozoz kikikilika genituela, batzuen gora, askoren agurrak eta txistuaren eresi bizkorraren laztanetan, urten genuen 303 aberkidek.

Txistularia Zubiritar Jon abertzale zintzoa genuen. Zeuretzat, Jon, neure lehenengo eta zorion-agurrik bihotzetikoena. Hamaikatxo lan egin duzu geure euzko-dantzen-alde! Bidaian zehar ziran etxe eta uri guztietan harrera gozoz hartu eta agurtzen gintuzten.

Yurren, abertzale-talde handiak, txistua eta euzko-ikurrina buru zituela, urten ziguten.

Otxandion hamaikagarren tarranta, ondarrutar eta durangarrek zekarten tarranta gehitu zitzaigun.

GAZTEIZ. Hamarretan heldu ginen Arabako Hiri-burura. Ordu erdi bertoko abertzale errimeak agurtu eta hiri politta ikustatzeko.

Oharrak

Euzko: Indar handiko eta hedadura zabaleko neologismoa, Sabino Aranak asmatua. Egun *eusko* idazten dugu.

Uri: hiri.

Yurre: Igorre.

Urten: irten.

7. Miren Joristi *Mirentxu* (*El Día*, 1932-09-29)

Datorren ostegun goizian ilero bezela goizeko zazpiretan izango degu jaupa gure txadon nagusian, eta abertzale bat bakarrik ere ez dedila gero gelditu jaupa ortara juan gabe geure [...] erakustera, eta aberri aldezko otoitz au egitera.

Jauna, euzkadi geure
Aberri on, begi errukior
eta maitetsubakiñ begiratu
egiozu, Zeure erri maite
onekiñ errukitu zaita. Etsai
guztiengandik azkatu egizu
ta azkatasun deuna eman
Jangoikua eta Lege Zarra'ren
bidetik ludi ontako
asmuak irxten dituala,
guretako bakoitzak ere
betiko oriona erresago
iriexi dakigun olaxe.

Il guztietako 29'an E.A.B.'k eskeintzen dio jaupa bat Mikel Deunari Euzkadi'ren azkatasuna iristeko berak lagundu deigun. Eta azkatasuna lortu dakigun bitartian ez gaitezen gelditu geure lan eta otoitzetan. Batez ere emakumiak gera zintzo jarraitu biar degunok Aberri aldezko lanetan, eta emakume danok euskotar zintzuak bagiñake eta Aberria ondo ezagutu ta maitatuko bagendu, Euzkadi geuria genduke. Baña biar bizela maitatzen ez degun bitartian beti iñorena izango degu.

Emakumiak zayatu gaitezen bada azkatasun osoa iritxi arte.

Datorren ostegun goizean hileru bezala goizeko zazpitan izango dugu jaupa gure txadon nagusian, eta abertzale bat bakarrik ere ez dadila gero gelditu jaupa horretara joan gabe geure [...] erakustera, eta aberri aldeko otoitz hau egitera.

Jauna, Euzkadi geure
Aberri on, begi errukior
eta maitetsuarekin begiratu
egiozu, Zeure herri maite
honekin errukitu zaitetz. Etsai
guztiengandik askatu egizu
eta askatasun deuna eman
Jangoikoa eta Lege Zaharraren
bidetik ludi honetako
asmoak iristen dituela,
guretako bakoitzak ere
betiko zoriona errazago
iritsi dakigun holaxe.

Hil guztietako 29an E.A.B.k eskaintzen dio jaupa bat Mikel Deunari Euzkadiren askatasuna iristeko berak lagundu dezagun. Eta askatasuna lortu dakigun bitartean ez gaitzen gelditu geure lan eta otoitzetan. Batez ere emakumeak gara zintzo jarraitu behar dugunok Aberri aldeko lanetan, eta emakume denok euskotar zintzoak bagina eta Aberria ondo ezagutu eta maitatuko bagenu, Euzkadi geurea genuke. Baina behar bezala maitatzen ez dugun bitartean beti inorena izango dugu.

Emakumeak saiatu gaitzen bada askatasun osoa iritsi arte.

Oharrak

Irxten: iristen

Txadon: eliza.

Irixi: iritsi, erdietsi.

E.A.B.: Euzko Emakume Batza.

Jaupa: meza.

8. Julene Azpeitia *Arritokieta* (*Euzkadi*, 1934-05-03)

Ara emen neri izuikara eman ziran Kepa idazleak esandako gauza bat: “egunero obetoago ta geyago idazten da, eta egia da euzkera idatziaren bitartez, itz egiten dan euzkera garbitu eta ondu dala, baina euzkera erabiltzea gutxituz dijua eta onela ba’goaz, euzkera denbora gutxi barru ele illen artean izango da”

Euzkera, ele bizia bezala behintzat, eskutatzen ari da, iges dagi gure artetik, bai dijoakigu, nora baña? Geyago etorriko ez da alderantz, eriotzaren magal oztera, betiko illobira.

Altube´tar Sebe jaunak “La vida del euzkera” bere idatzi irakurgarrian, gure elia orain dagoan eriolarriraiño ekarri duten zergaitiak azaltzen ditu.

Zergaiti abetako batzuk guk zuzendu ezin gindezkenak dira. Esaterako, France-eliak eta España-eliak su biren erdian artuta, alde bietatik egiten dioten guda gogorra.

Erdera abek biak sendoak eta zabalak bai dira! Mundu gustian zabalduak eta millioi askok itz egiteko erabiltzen dituztenak.

Gizaldi luzetan, batek Ipar-aldetik, eta besteak Ego-aldetik, erdera abek biak gure euzkerari egiten ari diran guda gogorrean, gure euzkerak pitinga-pitinga lurra galdu du, geroago eta estuago egiten ari da bere lurrean, iñori kendugabeko lur onetan.

Baña euzkarari illobira bultzatzen dioten zergatien artean bai daude beste batzuek, geuk nai ba’gendu kenduko edo ezereztuko ginduzkenak.

Bata da euzkerari, Euzkadi´ko ume ikastola denetan egiten zayon guda ankerra. (...) Ikastetxe oyek gure artean egiten duten lanik ertenena España-zaletasuna zabaltzea eta euzkera galdu ta ele lotsagarritzat eukitzea izan da.

Baña abek danak onela diran arren, gure euzkerak atzerantz egiten ba´du, geuk euzkeldunok erabili nai ez degulako da. Euzkera ordez erderaz itz egiten degulako.

Hara hemen niri izu-ikara eman zidan Kepa idazleak esandako gauza bat: “egunero hobetoago eta gehiago idazten da, eta egia da euskara idatziaren bitartez, hitz egiten den euskara garbitu eta ondu dela, baina euskara erabiltzea gutxituz doa eta honela bagoaz, euskara denbora gutxi barru ele hilen artean izango da”

Euskara, ele bizia bezala behintzat, ezkututzen ari da, ihes dagi gure artetik, bai doakigu, nora baina? Gehiago etorriko ez da alderantz, heriotzaren magal hotzera, betiko hilobira.

Altube´tar Sebe jaunak ‘La vida del euzkera’ bere idatzi irakurgarrian, gure elea orain dagoen herio-larriraino ekarri duten zergatiak azaltzen ditu.

Zergati hauetako batzuk guk zuzendu ezin genitzakeenak dira. Esaterako, France-eleak eta España-eleak su biren erdian hartuta, alde bietatik egiten dioten guda gogorra.

Erdara hauek biak sendoak eta zabalak baitira! Mundu guztian zabalduak eta milioi askok hitz egiteko erabiltzen dituztenak.

Gizaldi luzetan, batek Ipar-aldetik, eta besteak Hego-aldetik, erdara hauek biak gure euskarari egiten ari diren guda gogorrean, gure euskarak pitinka-pitinka lurra galdu du, geroago eta estuago egiten ari da bere lurtean, inori kendu gabeko lur honetan.

Baina euskarari hilobira bultzatzen dioten zergatien artean bai daude beste batzuek, geuk nahi bagenu kenduko edo ezereztatuko genituzkeenak.

Bata da euskarari, Euzkadiko ume ikastola denetan egiten zaion guda ankerra. (...) Ikastetxe horiek gure artean egiten duten lanik ertenena España-zaletasuna zabaltzea eta euskara galdu eta ele lotsagarritzat edukitzea izan da.

Baina hauek danak honela diren arren, gure euskarak atzerantz egiten badu, geuk euskaldunok erabili nahi ez dugulako da. Euskara ordez erdaraz hitz egiten dugulako.

Oharrak

Ele: hizkuntza.

9. Julene Azpeitia *Arritokieta* (*Euzkadi*, 1935-04-10)

Esku-lanetan ikusten degun bezain trebe eta azkarra ikusi gentzake emakumea buru lanetan ere.

Urte askotan egi aunditzat artuta eduki du gizadiak esaera ua: “Emakumeak ez du buru lanetarako balio, gizonak bakarrik balio du orretarako. Jaungoikoak gizonari eman dio burua eta emakumeari bihotza”.

Eta esaera au egiteak bayezten zuten. Ikusi ere alaxe egiten zan. Emakumeak irakurten, idazten eta doi-doi Zenbakizki apur bat jakin oi zuten. (...)

Mundu guztia ziñistuta zegoan emakumeak ez zutela jakintza gayetarako balio, gai oyetarako gizonak bakarrik balio zutela.

Augaitik nonbait, gizasemeak bakarrik juaten ziran Ikastola Nagusi edo Unibersidadietara, gizasemeak bakarrik adiraldu edo estudiatzen zuten, eta jakina! Gizasemeak bakarrik jakiten zuten. Nola erakutsiko zuen ba emakumeak, gizasemea beste bazala buru lanetan? (...)

Gai degu ba emakumea jakintza arloetarako, politika arloetarako, eta beste gayetarako ere berdin, gizasemea beste edo geyago.

Eta ezin leike, gauza ez dan aitzakiaz, gizasemeak egiten dituzten lanetatik, ez eta ere laterrien gobernu aukietatik emakumea uxatu.

Esku-lanetan ikusten dugun bezain trebe eta azkarra ikusi genezake emakumea buru lanetan ere.

Urte askotan egia handitzat hartuta eduki du gizadiak esaera hura: “Emakumeak ez du buru lanetarako balio, gizonak bakarrik balio du horretarako. Jaungoikoak gizonari eman dio burua eta emakumeari bihotza”.

Eta esaera hau egiteak balezten zuten. Ikusi ere halaxe egiten zen. Emakumeak irakurtzen, idazten eta doi-doi Zenbakizki apur bat jakin oi zuten. (...)

Mundu guztia sinetsirik zegoen emakumeak ez zutela jakintza gaietarako balio, gai horietarako gizonak bakarrik balio zutela.

Haugaitik nonbait, gizasemeak bakarrik joaten ziren Ikastola Nagusi edo Unibersidadietara, gizasemeak bakarrik adiraldu edo estudiatzen zuten, eta jakina! Gizasemeak bakarrik jakiten zuten. Nola erakutsiko zuen ba emakumeak, gizasemea beste bezala buru lanetan? (...)

Gai dugu ba emakumea jakintza arloetarako, politika arloetarako, eta beste gaietarako ere berdin, gizaseme beste edo gehiago.

Eta ezin liteke, gauza ez den aitzakiaz, gizasemeak egiten dituzten lanetatik, ez eta ere laterrien gobernu aukietatik emakumea uxatu.

Oharrak

Zenbakizki: aritmetika.

10. Karmele Errazti Saratxo *Etxakin* (Euzko Gogoa, 1950ko irailean)

Neurtitz zarrak eta neurtitz barriak dirala-ta, gixonak diñardube; baña, jakiña, gixonak egiñak beti. Emakume oleskarijak ixan dirala ta bai-dirala ondiño be, ¿gixonak ete-dakije?

Laketu, ba, niri emakume oleskarijetzaz jarduten.

Olertija, Euzkadi'n, euzko-abendea baxen zarra da. Gure asabeak, ludija ludi danetik ona, beti abestu ixan dabe: Urtzi'ri abesti gurgarriak, gau-illaren gabetan ildakuai eresi-abestijak; mutillak neskatillai maitasun-abestijak; etxejoaun eta etxekanderai olentzaro ta Agate Deuna'ren abestijak; gurasuak umiai gabon-abestijak; amatxubak umetxubai seaska-abestijak. Gure Errijaren ogasunik ederrenak abestijak ziran eta sendi-barru, belaunik belaun, gordetzen ziran.

Amabigarren eungiraño abestirik gitxi dazaugu. Amalau eta amaboskarrenian euzkel-olertija naiko aurreratuba eguan, eta amasei eta amazapigarrenetan euzko-abestijak ugarijak ziran. Amartzigarrenian oleskari ospatsubak ixan ziran Euzkadi'n eta emeretzijan Euzkel-Pizkandia jayo ta ederretzjantzi zan.

Neurtitz zaharrak eta neurtitz berriak direla eta, gizonak dihardute; baina, jakina, gizonak eginak beti. Emakume olerkariak izan direla eta bai-direla oraindino be, gizonak ote-dakite?

Laketu, ba, niri emakume olerkarietaz jarduten.

Olertia, Euzkadin, euzko-abendea baizen zaharra da. Gure asabek, ludia ludi denetik hona, beti abestu izan dute: Urtziri abesti gurgarriak, gau-ilaren gauetan hildakoei eresi-abestiak; mutilek neskatilei maitasun-abestiak; etxeko-jaun eta etxeko-andereei Olentzaro eta Agate Deunaren abestiak; gurasoek umeei gabon abestiak; amatxoek umetxoei sehaska abestiak. Gure Herriaren ogasunik ederrenak abestiak ziran eta sendi-barru, belaunik belaur, gordetzen ziren.

Hamabigarren ehungiraino abestirik gutxi dazaugu. Hamalau eta hamabosgarrenean euzkel olertia nahiko aurreratua zegoen, eta hamasei eta hamazazpigarrenetan euzko abestiak ugariak ziran. Hamazortzigarrenean olerkari ospetsuak izan ziran Euzkadin eta hermeretzian Euzkel Pizkundera jaio eta ederrez jantzi zen.

Oharrak

Abendea (abenda): arraza.

Ehungi: mende, gizaldi.

Ludia: lur, lurbera, mundu.

Dazaugu: ezagutzen dugu.

Laketu (n-n): baimena eman, baimendu.

Olentzaro zein Olentzero, aldaera biok daude, beste zenbaitekin batera, dokumentaturik.

11. Karmele Errazti Saratxo *Etxakin* (Euzko Gogoa, 1950ko irailean)

«Euzko-Gogoa» deritxon aldizkingija, Zaitegi jaunak Guatemala'n euzkera utsez argitaldurikua, arrtu dot eta pozik-bai-pozik irakurri be. Bertan gairik sakonenak euzkera garbiz agertzen dira: olerrtija, elerrtija, eresertija, edestija, antzertija, gixarrte-gayak, idazti deunak eta guztitariko jakintza-gayak. Or aurrian esan dodazan itzik asko nire entzule geyenak ez-edo dabez ulertzen, baña bai, noski, euzkerea benetan mate ta landuten dabenak. Orain ulertzen dabezanak, len ezebezan ulertzen; eta orain ulertzen; eta orain ulertzen eztabezanak, gero ulertuko dabez. Baña orretarako, ulertzen doguzanak erabilli ta zabaldu egin biar-doguz. Nik, nire aldetik, ori egingo dot gaur emen, eztakijanari irakastia goi-matasunezko lana da-ta. Ia ba, poliki-poliki

Olerri, poesía; elerrti, literatura; ereserrti, Música (arte); antzerrti, Teatro (arte); gixarrte-gayak, cuestiones sociales; idazti deunak, libros sagrados edo santas escrituras.

Euzkel-itz onek eztira orain barrijak; berrogatamar edo geyagozko urtedunak dira. Beraz, naiko zarrak dira ta euzkeldunik askok ezagutu ta erabiltzen dabez. Ostera, bana, bai-dira olako euzkel-itzak erabilli gura eztabezan euzkeldunak, eta euzkeltzaliak dirala esaten dabenak be. Ori eztot nik ulertu edo konprenitzen. Poesija, literatura, musikia, istorija, teatrua, kustiño sozjalak, liburu santuak eta abar entzutiak niri belarrijetan min-egiten daust. Eta nire entzuliai emendik itandu al ba neuskija, danok edo geyen-geyenak bardin erantzungo eustien. Baña ganera, mordollozko itz zantar orrek-eztira benetan zarrak, benetako barrijak baño, ta Euzkadi orain eun urte baño geyako ezatala sarrru ziran Gaztela-axiak bultzauta, orbela axiak darabillan lez. Beraz, itz itxusi orrek orbela lakoxiak dira: errdel-axiak ekari ebazan eta euzkel-axiak eruan biar-dau

Geronek, orain eun urteko euzkeldunak lez itz-egin eta idazten badogu, emendik eun urtera etorriko diran euzkeldunak be bardin egingo dabe, ta euzkera gure ele matagarrija geldittuta geratuko da, ur illa idoi baten lez, eta ur illa idoi baten lez ustelduko da.

Euzko-Gogoa deritzon aldizkaria, Zaitegi jaunak Guatemalan euskara hutsez argitaraturikoa, hartu dut eta pozik-bai-pozik irakurri be. Bertan gairik sakonenak euskara garbiz agertzen dira: olerrtija, elerrtija, ereserrtija, edestija, antzerrtija, gixarrte-gayak, idazti deunak eta guztietariko jakintza-gayak. Hor aurrean esan ditudan hitzik asko nire entzule gehienak ez-edo dituzte ulertzen, baina bai, noski, euskara benetan maite eta lantzen dutenek. Orain ulertzen dituenak, lehen ez zituen ulertzen; eta orain ulertzen ez dituztenek, gero ulertuko dituzte. Baina horretarako, ulertzen ditugunok erabili eta zabaldu egin behar ditugu. Nik, nire aldetik, hori egingo dut gaur hemen, ez dakienari irakastea goi-maitasunezko lana da eta. Ia ba, poliki-poliki

Olerrti, poesía; elerrti, literatura; ereserri, Música (arte); antzerri, Teatro (arte); gixarrte-gayak, cuestiones sociales; idazti deunak, libros sagrados edo santas escrituras.

Euskal-hitz hauek ez dira orain berriak; berrogeita hamar edo gehiagozko urtedunak dira. Beraz, nahiko zaharrak dira eta euskaldunik askok ezagutu eta erabiltzen dituzte. Ostera, baina, bai-dira olako euzkel hitzak erabili gura ez dituzten euskaldunak, eta euskaltzaleak direla esaten dutenak ere. Hori ez dut nik ulertu edo konprenitzen. Poesia, literatura, musika, historia, teatroa, kuestio sozialak, liburu santuak eta abar entzuteak niri belarrietan min egiten dit. Eta nire entzuleei hemendik itaundu al ba nieke, denok edo gehien-gehienez berdin erantzungo zidaten. Baina gainera, mordoilozko hitz zantar horiek ez dira benetan zaharrak, benetako berriak baino, eta Euzkadi orain ehun urte baino gehiago ez dela sartu ziren Gaztela-haizeak bultzatuta, orbela haizeak darabilen lez. Beraz, hitz itsusi horiek orbela lakoxeak dira: erdal- haizeak ekarri zituen eta euzkel- haizeak eroan behar du.

Geronek, orain ehun urteko euskaldunek lez hitz egin eta idazten badugu, hemendik ehun urtera etorriko diren euskaldunek be berdin egingo dute, eta euskara gure ele maitagarria geldituta geratuko da, ur hila idoi baten lez, eta ur hila idoi baten lez ustelduko da.

Oharrak

Lakoxe: bezalakoxe.

Enongeta misia
angigantaka,
santa kaga banta
an lina waka,
lamma bantate dia
entenditaka,
mili asi gion
kada antaka.

Babeslea



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EIE Euskal Idazleen Elkartea

Three horizontal white bars of varying lengths, stacked vertically, located below the text 'EIE Euskal Idazleen Elkartea'.